

Azterketen erreklamazioak egiteko araudia

Edozein ebaluazioren emaitzarekin bat ez datorren ikasleak erreklamazioa egin ahal izango du ondoko arauetara jarraituz:

- Bere azterketaren zuzenketarekin ados ez dagoen ikasleak, bai ebaluazioetakoa, bai azkena, errebisioa eskatzeko eskubidea izango du.
- Ebaluazio arruntetako azterketaren zuzenketa ahoz eskatuko dizkio interesatuak dagokion irakasleari. Kasu honetan, irakasleak, azterketa berrikusi eta horren arabera jokatuko du.
- Oraindik ere, ez-adostasuna dagoen kasuetan, ikasleak bigarren ere azterketa berrikustea eskatu ahal izango du, idatziz eta Idazkaritza Akademikoan kasu honetan, bi eguneko epean. Berrikuspen hau gutxienez bi irakasle osatutako taldeak aztertuko luke eta beste bi eguneko epean erantzuna adieraziko du.
- Ekintza honekin prozedura bukatutzat emango da.
- Azken ebaluazioa den kasuetan, prozedura, berdina izango da. Epe bakoitza egun batetan murriztuko da.
- Ikasle bakoitzak, azterketak errebisatzeko hiru aukera izango ditu ikasturteko.